
ANAR GEEK MANIFESTUA V I . O B

Anargeek bat naiz. *Anargeeka*. Anarkista eta *geeka*, beste batzuen artean.

Geek naiz ordenagailu deitzen diegun makina arraro horiek erabili, ulertu eta aldatzea gustatzen zaidan pertsonen taldeko kide naizelako.

Geek naiz, baita ere horiek nola funtzionatzen dutenaren inguruko jakin-mina dudalako. Nire buruari galdetzen diot horien programekin zer egin behar dudan. Eta batzutan oraindik aztertu edo pentsatu ez diren erabilera batzuk zoratu egiten naute.

Geek naiz makina horiek nire eguneroko bizitzaren parte direlako. Erloju bezala, musika-erreprouditzaile gisa, liburutegi gisa, idazmakina bezala, kafe-makina bezala, telefono edo memorandum gisa erabiltzen ditudalako, baina guztiaren gainetik, jolastoki zabalak dira. Komunikazioaren, aurkikuntzen, sorkuntzaren laguntza.

Geek naiz, baita ere, momenturen batean komunikazio digitalari lotu nintzaiolako. Ia egunero, ez bada egunear hainbat aldiz, nire posta elektronikoa irakurtzen dut, Interneteko zerbitzari batzuk administratzen ditut, banatzen ari naizen sareak bilatzen ditut, foroetan, posta-zerrendetan eta hainbat webgunetan nire burua informatu, ikasi eta informazioa trukatzeko, IRCaren bitartez txateatu eta jendea ezagutzen dut.

Ni *geek* bat naiz, gainera, terminoa gustatzen zaidalako. Hasieran iraina zen. Baina gero, aipatzen zituenek erreklamatu zuten, positibo bihurtu eta komunitate batean erroto zen, beste zenbait “gutxiengo kulturalak” egin zuten moduan.

Anarkista naiz, menderakuntzan oinarritzen den gizartea errefusatzeko dudalako. Ziur nago norberaren boteretzea eta elkarrekiko errespetua elkarrekin lortu ahal izateaz eta desagarrak izateaz gain, berdintasuna, elkartzasuna eta norberaren kudeaketaren bitartez lor daitezkeenaz.

Beraz, anarkista naiz etengabe masen esplotazioa, sufrimendua eta heriotzak eragiten dituzten gizarte egiturek haserretu egiten naudelako. Sistema hori desagerrarazten lagundu nahi du, gizarte borroketan parte hartuz eta kolektiboen erro erradikaletan inplikatzuz.

Anarkista naiz nire eguneroko bizitza nire printzipioak esperimentatzeko aukera gisa ikusten dudalako. Gizarte arauak puskatu nahi ditut, kontsumismorako eta lehiaketarako deiei jaramonik ez eginez; alienazioa errefusatzuz, jarrera zapaltzaile eta menderatzaileak suntsituz, alternatiba kolektibo eta berdintasunezkoak garatuz.

Anarkista naiz baita ere informazio “ofizialekiko” eszeptikoa izan ohi naizelako, kritikoa izan nahi dut komunikabide nagusi eta instituzionalekiko, gure ikuspegia hutsuneekin, gezurrekin eta informazio okerrarekin formateatzen dutelako. Norberak aitortutako objektibotasunarekin, nire burua informatu eta hezteko beste baliabide batzuk bilatzen saiatzen ari naiz, berriak sortu eta zabaltzeko tresna alternatiboen bila.

Anarkista naiz, baita ere, jendearen beldurraren manipulazioari esker gizarteaz jabetu den paranoiaren aurka azaltzen naizelako. Agintariak pobreen, beheragoko klaseen eta aktibisten aurka erabiltzen dituzten kriminalizazioa, datu pertsonalen bilketa eta errepresio prozesuak errefusatzeko ditut. Ez dago esan beharrik etsi egin behar diogula.

· · · *Anargeeka* naiz, sorkuntza teknologikoa eta ordenagailuetako ezagutza iritzi etikoekin eta praktika politikoekin bateratu nahi ditudalako. Pentsamenduak esanahia eta norabidea duen praktika ematen duen bitartean, praktikak pentsamendua indartzen du eta ideiei adierazpen jakin bat ematen die.

Anargeeka naiz, orduan, autodeterminazioan, lankidetzan askean eta adimen kolektiboan oinarrituriko gizarte batean bizi nahi dudalako. Horrela bada, ni ados nago doako softwarearen mugimenduekin, munduko milaka boluntarioren lankidetzaren emaitza gisa sortzen denarekin, edozeini ordenagailuko programak banatu eta ulertzekoaz gain aldatu eta banatzeko aukera ematen diotelako.

Anargeeka naiz ez dudalako sistema politiko baten ez eta ordenagailu sistema baten esklabo bihurtu nahi. Estatuak beren legeak hiritarrei inposatzen dizkieten bitartean, softwareen jabeek erabiltzaileak estandarretara derrigortzen dituzte. Agintariek errepresioaren bitartez asaldura saihesten duten bitartean, konpainiak patenteen bitartez alternatibak hiltzen saiatzen dira. Nire bizitzaren jabe izan nahi dut, erabiltzen ditudan tresnak ulertu, aldatu eta sortzeko gai izan nahi dudana bezala.

Anargeeka naiz, baita ere ondasunak produzitzen, baliabideak alferri galtzen eta xahutzen jarraitzen duen eta bitartean beti jendearen burua manipulatzeko duen kapitalismoak indarturiko kontsumismo amaigabeari aurre egin nahi diodalako. Zaharkituztat jotzen den hardwarea ordezko piezekin birziklatzen dut, doako softwarearekin askatzen dut. Zaharkituztako makinak mugetara iristea gustatzen zait, sortzea kontsumitzea baino gehiago, irudimena eta politika elkarrekin nahasteko saiakeran.

Anargeeka naiz ni partaide naizen komunitateetan errotzen diren zenbait jarrera asaldatzeko beharra sentitzen dudalako. Kultura politikoak eta ordenagailuetako kultura alternatiboak ezker erradikal bihurtu nahi nituzke batek bestea ezagutzeko hainbat arrazoiengatik: ezinbestekoa da *geek* mugimenduan dagoen eta informatika zientzietan lotuta doan espezializazio altua kritikoki balioztatzen duen kultura sexista indartsu bati erronka botatzea, mugimendu militanteek aukera digitalak ulertzea beharrezkoa den moduan.

Anargeeka naiz baita ere informatika baliabide bikaina delako informazio independentea sortu eta zabaltzeko. Horregatik hartzen dut parte kontrainformazioko sareetan, adibidez, Indymedian: munduan zabalduta eta guztiei irekita dagoen komunikabide autonomoa da, aktoree/ikusleen/kazetarien arteko mugak puskatzen dituen eta komunikabide nagusiek zehurtiaz baztertzen dute edo horren inguruko informazio okerra ematen dute.

Anargeeka naiz baita ere ordenagailuek gizartearen kontrola eta menderakuntza errazten badute, sinisten dudalako horiek ere norbera indartzeko, komunikatzeko eta sedizioa tresna gisa ere erabili daitezkeela. Jakituria banatzen denean norberarentzat gordetzen denean baino erabilgarriagoa denez, gaitasunak banatzeko tailerretan parte hartzen dut edo tresna eta "zerbitzu" ez komertzial kolektiboak altxatzen, adibidez, zerbitzari autonomoak, Interneteko doako puntuak, proiektu solidarioen webguneak edo hardwarea...

"Manifestu" horren helburua ez da pentsatzen duena esatea. Neurri batean zeurea egin, onartu edo guztiz errefusatzeko aske zara. Eta norbanako bezainbesteko *anargeek* daudenez, guztiak animatzen ditut beren manifestua idatzi eta egikaritzera, beren ideiak esperimendatzera, beren grafittia edo ASCIIa marraztera.

Immobilismoa, buruzagitza eta pasibitatea? Ez, eskerrik asko! Guztiok asma eta birprograma dezakegu gure burua!

2002ko abendua, [darkveggy](#).

[Darkveggyren ingelesezko itzulpena](#), 2004ko ekaina. . . .

Itzulpen oharra: *anargeek* terminoak *anarkogeek* ordezkatzen du. Aldiz, *anargeeka* ez da oso hanpatua ingelesez, berehala hartzen du zentzua euskaraz, betiere irakurleak *anargeek* eta *geek* terminoak ezagutzen baditu (*anar anarkistaren* laburdura gisa), *Anarkogeek* jada blog bat bezala ezagutzen delako (herriarena, Indymediatik- [anarchogeek.com](#)), *anargeek* gorde egin zen.

Hemendik copyleftatua:

Creative Commons AttributionNonCommercialShareAlike 2.0 license.

<http://www.hacklabs.org> Urtetan, hiletan, egunetan zehar, norbanakoen sare eta komunitateok jakituria trukatu, munduak diseinatu, tresnak eta gailuak esperimendatzeko aritu gara.

Milaka pentsamenduren adierazpena gara, Hirian eta Sarean zeharreko emigranteak gara; herri xeheak eta praktikak espazio-denborako etenaldiak ireki ditzaketen leku baten bila ari gara.

Errealitatea ebaki nahi dugu eta laborategi bat behar dugu oinarrizko elementuak berriz lotzeko. Segurtasun irrealak eta errealegiak diren beldurrez izaturiko metropoli batean, haragi egindako irudiz, metala berpizten duten bytez beteriko gune bat sortzeko grina dugu.

Gure adimen kolektiboa teknologia digital/analogoz, infokomunikazioz, ezagutza banatzeaz, ezagutza hedatzeaz, partaidetzakatalisiaz eta askoz ere gehiagoz beteta dago.

Lau puntu kardinalak jada ez dira koordenada nahikoak. Martitza Lurretik inoiz baino gertuago dagoen moduan, ez dago konstelazio erretikulatu batentzako momentu hoberik, entropia baxuaren biowarea lasai bil dezakeen erlazioaren geometria berriarentzako, efektu berezi bizi eta afektu animatuak harritzen dituen eta horiekin harritzen dena.

Reload, Hacklab Milano, 2003ko irailak 14